



## GOROZKIAK BILTZEA PARASITOAK AZTERTZEKO

### BEHARREZKO MATERIALA



### LAGINA JASOTZEKO TEKNIKA

1. Makilatxo edo koilaratxo baten bidez, intxaur baten (10 g) tamainako gorozki kopuru bat bildu; ahal dela, mukia, odola edo zornea duen eremu batena.
2. Ez ukitu ura edo gernua.
3. Makroskopikoki uzkiekin edo gorozkietan parasitoekin bateragarriak diren formak ikusi direnean, aho zabaleko ontzian bilduko dira eta serum fisiologiko pixka bat erantsiko dute.

### PIXOIHALAREN LAGINA JASOTZEKO TEKNIKA

- Gorozkiak pixoihaletik jasotzen badira, berriak izan beharko dute eta azalekoenetik bildu beharko dira. Jaso intxaur baten gutxi gorabeherako tamainako gorozki-kantitate bat (10 g).

### KOPURUA

- Intxaur baten gutxi gorabeherako tamaina (10 g) duten laginak behar dira; gorozkiak likidoak badira, 5-10 ml bitarteko bolumena jasoko da.
- Zure medikuak gorozki-lagin bat baino gehiago hartzeko eska diezazuke. Kasu horretan, hurrengo egunetan jaso behar dira. Ez du balio egun bereko hainbat lagin hartzeak.

### LABORATEGIAN ENTREGATZEKO EPEA

- Gomendatua: bigarren edo hirugarren lagina entregatu arte (48-96 ordu).
- Tenia-eraztunak, harrak, baldin badaude, serum fisiologikoan eduki, giro-tenperaturan, 24 orduz gehienez..